

# **EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2009/10**

## **Lehen Hezkuntza**

**AZken TXostena**

**2010eko urria**

**Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua**  
**Ebaluazio Atala**

## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera .....</b>	<b>3</b>
<b>2. irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz.....</b>	<b>5</b>
2. 1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
2. 2. Gaitasun mailak: esanahia	
2. 3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
2. 4. Emaiza orokorrak	
<b>3. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz .....</b>	<b>14</b>
3.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
3.2. Gaitasun mailak: esanahia	
3.3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
3.4. Emaiza orokorrak	
<b>4. Matematikako gaitasuna .....</b>	<b>24</b>
4.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
4.2. Gaitasun mailak: esanahia	
4.3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
4.4. Emaiza orokorrak	
<b>5. Gaitasuna ingelesez .....</b>	<b>34</b>
5.1. Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua	
5.2. Gaitasun mailak: esanahia	
5.3. Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena	
5.4. Emaiza orokorrak	

# 1. Sarrera

Hezkuntzaren Lege Organikoaren 21. artikulua ezartzen du Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa bukatzean ikastetxe guztiek eginen dutela ikasleek eskuraturiko oinarritzko gaitasunen gaineko ebaluazioa diagnostikoa. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala izanen da, ikasle guztiek egin beharrekoa.
- Oinarritzko gaitasunen gainekoa izanen da.
- Ikasle eta gurasoendako informatiboa izanen da.
- Prestakuntzazkoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2010eko diagnostiko-ebaluazio zentsalaren ardatza dira irakaskuntza-hizkuntzetako irakurmena, matematikako gaitasuna eta irakurmena ingelesez; probek erreferentzia gisa 2008-09 ikasturtean argitaratu zen ebaluazioaren esparru teorikoa dute.

Maiatzean, ikastetxeek beraien ikasleen emaitzak jaso zituzten, ondoko helburuarekin: ikasle bakoitzaren gaineko txostena egitea. Txosten hori familien esku utzi zen ikasturte bukaeran.

Ekainean, ikastetxeek txostena jaso zuten, Nafarroako emaitza eta datu orokorrekin: batez besteko puntuazioak, ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean eta asmatuen ehunekoa itemetan. Horrela, ikastetxeek emaitzak testuingurura ekarri ahal izan zituzten, hasierako mailan baino ez bazen ere.

Irailean, ikastetxeek txosten osatuagoa jaso zuten. Bertan, euskarri grafikoko informazioa eman zen, eskalan batez besteko 500 puntu eta 100 puntuko desbideratze tipikoa adieraziz. Halaber, lehen aldiz jaso zen maila sozioekonomiko eta kulturalako informazioa: ikastetxeko ikasleek eskuraturiko batez besteko korrelazioa eta batez besteko indize sozioekonomiko eta kulturala (ISEK), eta era berean, informazioa etxean ikasitakoaren gainean, hezkuntza baliabideen gainean eta hitz egiten diren hizkuntzen gainean.

Txosten hau aurretik emandako informazioa osatzera dator. Ikuspegi orokorragoa ematen dio, ikasleen osotasuna eta proben ezaugarriak ardatz gisa harturik. Txosten honetan garrantzia handia dute gaitasun mailek, itemak gaitasun mailei atxikitzeak eta ebaluatoriko prozesua item bakoitzarekin identifikatzeak. Gainera, norbanakoen puntuazioen banaketa-grafikak eta errendimenduaren eta aldagai sozioekonomiko eta kulturalen arteko korrelazioa ere erantsi dira.

## Ebaluazioaren izaera zentsala

Lehen Hezkuntzako 4.eko matrikula 2009-10 ikasturtean, osotara, 6.381 ikaslekoa izan zen. Ikasle horiei zuzentzen zaie ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da ikasle batzuek ezintasun teknikoa dutela probak beharrezko baldintzetan egiteko. Horregatik, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: probako hizkuntza ez ezagutzea, gure hezkuntza sisteman duela gutxi sartu izanagatik (urtebete baino gutxiago), NHBBZk zentsaturiko ezgaitasun psikiko edo intelektuala izateak edo proba hauek egitea eragozten duen mugimendu edo zentzumen ezgaitasunen bat izatea.

Gorabehera hauen aplikazioak ekarri zuen probak egin zituen azken populazioa 6.146 kasu izatea.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren hedadura aztertzea ahalbidetzen duten datuak:

### *Matrikulazio eta parte-hartze datuak*

	Lehen Hezkuntza 4. kurtsoa	
	Kopurua	%
<b>Matrikulazioa, osotara</b>	6.381	100
<b>Salbuetsitako ikasleak</b>	235	3,68
<b>Populazioa</b>	6.146	96,32
<b>Probak egin zituztenak</b>	6.117	99,53
<b>Probak egin ez zituztenak</b>	29	0,47

Salbuetsitako 235 ikasleetatik, batzuek probak egin zituzten, eta banakako txostena eskuratu zuten. Hori posible izan zen, tutoreek pentsatu zutelako eskuratuko zen informazioak lagun zezakeela beraien lan profesionalean, ikuspegi osagarri eta baliagarri bat izateko.

Txosten honetan azalduko emaitza orokorretan ez dira kontuan hartu salbuetsiriko ikasleak.

Bestetik, ebaluazio egunean ez diren ikasleek ondoko egunetan egin beharko luketela ebaluazioa adierazten zen probak aplikatzeko protokoloan. Irizpide hori jarraitu da, neurri handi batean, ikasle asko zeudelako bajaran probak egin zirenean.

## 2. Irakurtzeko gaitasuna gaztelaniaz

### 2.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen kopurua

Proba bi testuk osatu dute. Bi testu horiek estimulu edo erreaktiboak ziren, eta horietatik ondoko galderak atera ziren:

“*El lobezno Teo*” testutik 15 item atera ziren eta “*Acebo para todo el invierno*” testutik 16.

31 galderetatik 29k puntu bateko balorazioa izan dute eta 2k 2 puntukoa. Kasu hauetan, puntu 1eko puntuazio partzialak onartu dira.

Itemen zailtasuna ez da beti berdina izan; izan dira errazak (zuzen %78,2k erantzundakoak) eta oso zailak (zuzen ikasleen %19k baino ez dituztenak erantzun).

31 itemei zegozkien zereginak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesuarekin daude erlazionaturik. Ondoko taulan erakusten dira probaren itemen ezaugarri zenbait: *Emandako gehienezko puntuazioa, tipologia irekia edo itxia, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua.*

Itemen ordena taulan eta probako koadernotxoan bera da.

Item zenbakia	Gehienezko puntuazioa	Irekia/itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	A	65,9	Formaren gainean hausnartzea
2	1	C	41,5	Interpretatzea eta berregitea
3	1	A	37,0	Informazioa bilatzea
4	1	C	72,2	Informazioa bilatzea
5	1	C	74,4	Interpretatzea eta berregitea
6	2	A	42,4	Informazioa bilatzea
7	1	C	73,1	Informazioa bilatzea
8	2	C	41,5	Informazioa bilatzea
9	1	C	57,1	Interpretatzea eta berregitea
10	1	C	47,2	Interpretatzea eta berregitea
11	1	C	42,7	Informazioa bilatzea
12	1	C	62,6	Formaren gainean hausnartzea

13	1	C	70,1	Ulermen orokorra
14	1	C	78,4	Interpretatzea eta berregitea
15	1	C	67,2	Edukiaren gainean hausnartzea
16	1	C	53,9	Ulermen orokorra
17	1	C	54,9	Informazioa bilatzea
18	1	C	51,5	Informazioa bilatzea
19	1	C	71,6	Informazioa bilatzea
20	1	C	59,0	Informazioa bilatzea
21	1	C	64,5	Interpretatzea eta berregitea
22	1	C	52,5	Informazioa bilatzea
23	1	C	58,5	Formaren gainean hausnartzea
24	1	C	38,7	Edukiaren gainean hausnartzea
25	1	C	52,2	Interpretatzea eta berregitea
26	1	C	18,6	Interpretatzea eta berregitea
27	1	C	31,9	Interpretatzea eta berregitea
28	1	C	53,0	Informazioa bilatzea
29	1	A	55,9	Ulermen orokorra
30	1	C	35,9	Interpretatzea eta berregitea
31	1	A	56,4	Edukiaren gainean hausnartzea

## 2.2. Gaitasun mailak: esanahia

Ikasle bakoitzak zuzen erantzundako galderen azterketatik abiatua, jakin daiteke zer den egiten dakiena eta menderatzen ez duena. Gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin:

### 1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio erabat literala ulertzeko, bai narrazio testuan eta bai azalpenezko testuan; hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, ulermen orokorra, hausnartzea eta baloratzea eskatzen duten galderei erantzuteko.

### 2. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek zuzen erantzuten diete 1. mailako galderari; hots, informazio erabat literalaren ulermena eskatzen dutenei, bai narrazio testuan eta bai azalpeneko testuan. Horretaz gain, informazioa bilatzeko galderak ere ebatzen dituzte, galderak ez direnean horren literalak eta egoeraren ulermen maila handiagoa eskatzen dutenean. Nolanahi ere, ikasle hauek zailtasunak dituzte orokorrean ulertzeko, interpretatzeko eta baloratzeko testu idatzi bat (berdin narrazio edo azalpen testua bada).

### **3. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa berreskuratzearekin loturiko galderak (informazio hori literala zein ez literala izan). Gainera testua orokorrean ulertzen dute. Edukiaren gainean hausnartzeari dagokionez maila onargarria dute. Gai dira testu bat baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko.

### **3. MAILA +**

3. mailan inplikaturiko lanak zuzen egiteaz gain, konplexuagoak direnak ebatzen dituzte.

### **Mailen definizio numerikoa**

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea:

	<b>Irakurmena gaztelaniaz Puntuazio tartekak</b>
<b>1. maila</b>	0-10
<b>2. maila</b>	11-14
<b>3. maila</b>	15-24
<b>3. maila+</b>	25-33

### **2.3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena**

Maila bereko ikasleen joera da galderari zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 5. galdera erraza izan da, oro har, ikasleak gai izan dira informazioa testuaren ildoaren arabera interpretatzeko, 12. galdera, formaren gainean hausnartzea,

zailagoa izan da, eta 2ak planteatzen duen interpretatze eta berregite lana oso zaila izan da, oro har.

Ondoren, zenbait item aipatuko ditugu.

**5. Zer esan nahi du ekainaren 29ko testuan azaltzen den “por fortuna ahora tengo muy buena estampa” esapideak?**

- A. Amak bera gehiago zaintzen duela.
- B. Pozik dagoela bere buruarekin.
- C. Gainontzeko otsokumeek miretsi egiten dutela.
- D. Anai-arreben arteko indartsuena dela.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretatzea eta berregitea
<b>Gaitasun maila</b>	2. maila
<b>Asmatuen % 2. mailan</b>	65,6
<b>Asmatuen %</b>	74,4

**12. Zergatik daude maiuskulaz “Collado de las MilHierbas” eta “Salto de los Lobos”?**

- A. Toki arriskutsuak direlako.
- B. Toki izenak direlako.
- C. Herrien izenak direlako.
- D. Teorendako toki garrantzitsuak direlako.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Formaren gainean hausnartzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila
<b>Asmatuen % 3. mailan</b>	67,5
<b>Asmatuen %</b>	62,6



## 2. Zenbat urte ditu Teok, gutxi gorabehera, egunkaria idazten hasi denean?

- A. Hilabete 1.
- B. 2 hilabete
- C. 20 egun
- D. 24 hilabete

<b>Erantzun zuzena</b>	A
<b>Puntuazioa</b>	Puntu 1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretatzea eta berregitea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+n</b>	64,6
<b>Asmatuen %</b>	41,5

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat sailkatzeko maila batean.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<b>Item kopurua</b>	<b>Mailen arabera sailkapena</b>
1	2. maila
2	3. maila+
3	3. maila+
4	2. maila
5	2. maila
6	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3. maila+. Erantzun osoa
7	2. maila
8	3. maila. Erantzun partziala edo osatugabea 3. maila+. Erantzun osoa
9	3. maila
10	3. maila+
11	3. maila+
12	3. maila

13	3. maila
14	2. maila
15	2. maila
16	3. maila
17	3. maila
18	3. maila
19	2. maila
20	3. maila
21	2. maila
22	3. maila
23	3. maila
24	*
25	3. maila
26	*
27	3. maila+
28	3. maila+
29	3. maila
30	*
31	3. maila

\* Diskriminazio maila baxuko itemak.

## 2.4 Eraitza orokorrak

**Estatistikoaren taula**  
**Irakurmena gaztelaniaz**

<b>Kop. Osotara</b>	<b>6.117</b>
<b>Gaitasun kop.</b>	<b>6.075</b>
<b>Nesken kop.</b>	<b>2.982</b>
<b>Mutilen kop.</b>	<b>3.093</b>
<b>Gutxienezko puntuazioa</b>	<b>1</b>
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	<b>33</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>17,64</b>

<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>6,06</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>18,00</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>17,30</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>13,8</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>18,5</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>52,3</b>
<b>3. maila+ (%)</b>	<b>15,4</b>

### **Alderdi azpimarragarriak:**


- Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehienezko 33 puntuetatik gutxienerako puntu 1era.
- Desbideratze tipikoa handikoa da, eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.
- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua: 42

### **Banaketa mailaka**

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	<b>Ehunekoak, mailaka</b>
<b>1. maila</b>	<b>13,8</b>
<b>2. maila</b>	<b>18,5</b>
<b>3. maila</b>	<b>52,3</b>
<b>3. maila+</b>	<b>15,4</b>

### ***Irudikatze grafikoa***



#### **Alderdi azpimarragarriak**


- 10 ikasletatik ia 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik 2k irakurtzeko prozesuak oso justu egiten dituzte.
- 10 ikasletatik 1 ez da gai irakurtzeko prozesuak egoki egiteko.

#### **Banaketa sexuaren arabera**

Neskek mutilek baino 0,70 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori ez da handia.


	<b>Batez besteko puntuazioa</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>18,00</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>17,30</b>

***Irudikatze grafikoa***



### Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio orokorren banaketa.



### Alderdi azpimarragarriak:

- Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:
- Zorrotzagoa, puntuazioen kontzentrazio handiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia 0,199 da.
  - Aski simetrikoa da, asimetria koefizientea -0,069koa da.

### 3. Irakurtzeko gaitasuna euskaraz

#### 3.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen %

Proba bi testuk osatu zuten. Bi testu horiek estimulu edo erreaktiboak ziren, eta horietatik ondoko galderak atera ziren:

“Usoa eta inurria” testutik 16 item atera ziren eta “Igelaren bizi-zikloa” testutik 12. 28 galderetatik 24 baloratu dira puntu 1ekin, eta 4, 2 punturekin. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %94,3ko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitik zailak dira, eta ikasleen %21ak baino ez dituzte asmatu.

28 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *emandako gehienezko puntuazioa, tipologia irekia edo itxia, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua*

Itemen ordena taulan eta probako koadernotxoan, bera da.

Item zkoa.	Gehienezko puntuazioa	Ireakia/ Itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	C	32,4	Informazioa eskuratzea
2	1	A	80,9	Informazioa eskuratzea
3	1	C	74,2	Informazioa eskuratzea
4	1	C	80,6	Interpretazioa prestatzea
5	1	C	89,9	Informazioa eskuratzea
6	1	C	79,3	Interpretazioa prestatzea
7	2	A	90,7	Informazioa eskuratzea
8	2	A	73,0	Edukiaren gainean hausnartzea eta balorazioa egitea
9	1	A	85,9	Formaren gainean hausnartzea eta balorazioa
10	1	C	94,3	Interpretazioa prestatzea
11	1	C	87,1	Informazioa eskuratzea

12	1	C	79,2	Interpretazioa prestatzea
13	1	C	90,4	Interpretazioa prestatzea
14	1	C	71,7	Informazioa eskuratzea
15	1	C	85,4	Informazioa eskuratzea
16	1	C	69,6	Ulermen orokorra
17	1	A	21,0	Ulermen orokorra
18	1	C	79,4	Informazioa eskuratzea
19	1	C	71,3	Informazioa eskuratzea
20	1	C	76,7	Informazioa eskuratzea
21	1	C	48,9	Informazioa eskuratzea
22	1	C	45,5	Ulermen orokorra
23	1	A	61,7	Ulermen orokorra
24	1	C	52,9	Interpretazioa prestatzea
25	1	C	77,5	Informazioa eskuratzea
26	1	C	37,8	Informazioa eskuratzea
27	2	A	46,4	Informazioa eskuratzea
28	2	A	62,3	Edukiaren gainean hausnartzea eta balorazioa egitea

### 3.2 Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderen azterketatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

#### 1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio literala ulertzeko, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoetan. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretazioa, ulermen orokorra, hausnarketa eta balorazioak eskatzen dituzten galderei erantzuteko. Nolanahi ere, gai dira pertsonaia nagusiaren deskribapen labur bat egiteko eta testuaren ildo nagusiarekin oso loturik dagoen interpretazio orokorren bat egiteko.

#### 2. MAILA

Maila honetako ikasleek egoki erantzuten diete 1. mailako galderari, hots, informazio literalak ulertzea eskatzen duten galderari, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoetan. Baina gainera, informazioa bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, eta horiek testuaren ulermen maila handiagoa eskatzen dute. Gai dira, halaber, pertsonaiaren ekintza zehatz baten eragina aurreratzeko.

Nolanahi ere, zailtasunak dituzte ulermen orokorrerako, interpretaziorako eta testuak baloratzeko. Ez dira gai inferentzia konplexuagoak egiteko, hurrenez hurreneko bi paragrafoetan dauden hiru ekintza kontatzeko edo pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzeko.

### **3. MAILA**

Maila honetako ikasleek zuzentasunez ebazten dituzte informazioa bilatzearekin erlazionaturiko galderak, literalak zein ez literalak, eta gainera, orokorki ulertzen dute testua eta gai dira istorioaren sekuentzia berreraikitzeke, emandako esaldien bidez. Edukiaren gainean hausnartzeari dagokionez maila ona dute. Gainera, testu etendun batean ulertzen dute informazioaren banaketa eta non bilatu behar den berariazko informazio mota bat. Gai dira testua baloratzeko eta testuaren gainean hausnartzeko, testuko datuak baliatuz edukiaren aplikagarritasunerako beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko asmoz.

### **3. maila+**

Maila honetako ikasleek, 3. mailan inplikaturiko lanak egokitasunez betetzeaz gain, konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte. Adibidez, gai dira aurreikusteko pertsonaiaren etorkizuneko portaera eta gai dira testuaren edukiaren gainean hausnartzeak eta interpretazioak egiteko, sinesgarritasun irizpideen arabera. Azalpenezko testuan gai dira testuan esplizituak ez diren interpretazio konplexuak egiteko.

### **Mailen definizio numerikoa**

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea:

	<b>Irakurtzeko gaitasuna euskaraz</b> <b>Puntuazio tartekak</b>
<b>1. maila</b>	0-17
<b>2. maila</b>	18-20
<b>3. maila</b>	21-27
<b>3. maila+</b>	28-32



### 3.3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena

Maila bereko ikasleen joera da galderei zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 4. itema erraza izan da oro har, ikasleak gai dira interpretazioa egiteko testuinguru erraz batean, 22.a zailagoa izan da eta 17 eta 26. itemak ikasle gaituenek baino ez dituzte ongi egin.

Ondoren, zenbait item aipatuko ditugu.

#### 13. Zergatik uste duzu inurriak pentsatu zuela zerbait egin behar zuela ehiztariak usoa ez botatzeko?

- A. Inguruan zeuden animalien artean indartsuena zelako.
- B. Usoak berari emandako laguntza eskertu nahi zuelako.
- C. Usoaren laguna izatea lortu nahi zuelako.
- D. Errekako animaliarik ospetsuena izan nahi zuelako.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretazioa prestatzea
<b>Gaitasun maila</b>	1. maila
<b>Asmatuen % 1. mailan</b>	62,8
<b>Asmatuen %</b>	90,4

#### 16. Zer uste duzu erakutsi nahi digula ipuin honek?

- A. Basoko animalia guztiak lagunak direla.
- B. Indarra garrantzitsuena dela laguntza emateko.
- C. Txikiek ere ahalmena dutela besteei laguntzeko.
- D. Animaliak ehiztariarengandik urrundu behar direla.

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	1

<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Ulermen orokorra
<b>Gaitasun maila</b>	2. maila
<b>Asmatuen % 2. mailan</b>	58,8
<b>Asmatuen %</b>	69,6

**24. Zer esan nahi du “metamorfosi” hitzak?**

- A. Uretan eta lehorrean ibiltzea.
- B. Emeak errun dituen arrautzetatik jaiotzea.
- C. Animalia batzuek jasaten dituzten aldaketak.
- D. Animaliak metatzea

<b>Erantzun zuzena</b>	C
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretazioa prestatzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila
<b>Asmatuen % 3. mailan</b>	61,2
<b>Asmatuen %</b>	52,9

**17. Testuaren hasieran lehenengo paragrafoa letra mota desberdinez dago, beltzago. Zein da lehenengo paragrafo horren asmoa?**

<b>Erantzun zuzena</b>	Zuzentze irizpideen arabera
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Irekia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Ulermen orokorra
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+n</b>	53,5
<b>Asmatuen %</b>	21

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpeneko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat sailkatzeko maila batean.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<b>Item kopurua</b>	<b>Mailen arabera sailkapena</b>
1	*
2	1. maila
3	2. maila
4	1. maila
5	1. maila
6	2. maila
7	1. maila
8	1. maila. Erantzun partziala 2. maila. Erantzun osoa
9	1. maila
10	1. maila
11	1. maila
12	2. maila
13	1. maila
14	2. maila
15	2. maila
16	2. maila
17	3. maila+
18	2. maila
19	3. maila
20	2. maila
21	3. maila+
22	3. maila+
23	3. maila
24	3. maila
25	1. maila

26	3. maila+
27	3. maila. Erantzun partziala 3. maila+. Erantzun osoa
28	2. maila. Erantzun partziala 3. maila. Erantzun osoa

\* Diskriminazio maila baxuko itemak.

### 3.4 Eraitza orokorra

#### *Estatistikoaren taula (Irakurmena euskaraz)*

<b>Kop. osotara</b>	<b>1.630</b>
<b>Gaitasun kop.</b>	<b>1.622</b>
<b>Nesken kop.</b>	<b>776</b>
<b>Mutilen kop.</b>	<b>845</b>
<b>Gutxienezko puntuazioa</b>	<b>1</b>
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	<b>31</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>22,18</b>
<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>4,44</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>22,39</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>22,00</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>14,4</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>16,5</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>60,3</b>
<b>3. maila+ (%)</b>	<b>8,8</b>

#### **Alderdi azpimarragarriak:**


- Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehienezko 31 puntuetatik gutxienezko puntu 1era.
- Desbideratze tipikoa baxu samarra da, eta horrek adierazten du banakako puntuazioak batez bestekoaren inguruan biltzen direla
- Ikasle bakar batek ere ez du erdietsi probako gehienezko puntuazioa: 32 puntu
- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua: **8**

## Banaketa mailaka

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	14,4
2. maila	16,5
3. maila	60,3
3. maila+	8,8

### Irudikatze grafikoa




### Alderdi azpimarragarriak:

- 10 ikasletatik ia 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.
- 10 ikasletatik kasik 2k irakurtzeko prozesuak oso justu egiten dituzte.
- 10 ikasletatik 1 ez da gai irakurtzeko prozesuak egoki egiteko.

### Banaketa sexuaren arabera


Neskek mutilek baino 0,39 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori ez da handia.

	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	22,39
Mutilen batez bestekoa	22,00



### Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



### Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Zorrotzagoa, puntuazio kontzentrazio handiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia 0,731 da.
- Ez da oso simetrikoa, ezkerrera mugiturik dago, asimetria koefizientea -0,748 da.

## 4. Matematikako gaitasuna

### 4.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatuen %

Proba 4 estimulak osatu dute. Horietako bakoitzean 5 eta 9 item bitartean egin ziren. 27 item izan dira osotara, eta horietatik 24 puntu batekin baloratu dira eta 2, 2 punturekin. Azken kasu honetan, puntu 1eko puntuazio partziala onartu da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak dira, %87,8ko asmatuekin; beste batzuk, aldiz, hagitiz zailak dira, eta ikasleen %11k baino ez dituzte asmatu.

27 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematika prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *Emandako gehienezko puntuazioa, tipologia irekia edo itxia, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua.*

Itemen ordena taulan eta probako koadernotxoan, bera da.

Item zkoa.	Gehienezko puntuazioa	Irekia/ Itxia	Asmatuen %	Ebaluaturiko prozesua
1	1	C	52,8	Egoera ulertzea
2	1	A	74,1	Ebazpen matematikoa
3	1	A	71,1	Ebazpen matematikoa
4	1	C	44,6	Ebazpen matematikoa
5	1	C	65,7	Egoera ulertzea
6	1	C	53,9	Egoera ulertzea
7	2	A	11,1	Ebazpen matematikoa
8	2	A	87,8	Ebazpen matematikoa
9	1	C	85,3	Ebazpen matematikoa



10	1	C	84,4	Arrazoitze matematikoa
11	1	A	66,6	Egoera ulertzea
12	1	A	39,0	Egoera ulertzea
13	1	C	57,3	Ebazpen matematikoa
14	2	A	46,0	Ebazpen matematikoa
15	1	C	60,4	Ebazpen matematikoa
16	1	C	54,6	Arrazoitzea
17	1	C	75,6	Ebazpen matematikoa
18	1	C	35,4	Egoera ulertzea
19	1	C	65,9	Arrazoitzea
20	1	A	23,9	Ebazpen matematikoa
21	1	C	44,2	Ebazpen matematikoa
22	1	C	58,0	Ebazpen matematikoa
23	1	C	19,2	Ebazpen matematikoa
24	1	C	45,8	Ebazpen matematikoa
25	1	C	41,6	Egoera ulertzea
26	1	C	51,0	Ebazpen matematikoa
27	1	C	53,9	Ebazpen matematikoa

## 4.2 Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderen azterketatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

### 1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleek matematikako gaitasun maila oso baxua erakusten dute. Oso galdera gutxiri erantzun diete zuzentasunez. Galderarik tipikoena eta ikuspegi estatistikotik adierazgarriena maila honetan, datuak grafikoki barra diagraman irudikatzeari dagokiona da. Kasu hauetan, probako galderaren formatua oso antzekoa da testu liburuetan izaten diren ariketekin.

## **2. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleak gai dira galdera errazei erantzuteko. Galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila suposatzen dute. Adibidez, grafiko bat egitea laguntzarekin eta adibideekin, denbora kalkulu hagitx oinarritzkoak egitea, hagitx oinarritzko taulak interpretatzea eta horietatik informazioa ateratzea, planoan simetria ulertzea. Lan horietan guztietan ez daude inplikatuak kalkulu matematikoak (edo kalkuluak egiten badira lehen zikloari dagokion konplexutasun mailakoak dira). Maila horretan bi urrats suposatzen duten arazoak ere ez daude, ezta 4. mailako ikasle batek ustez egiten jakin behar dituen arazoak ere.

## **3. MAILA**

Maila honetan dauden ikasleek gaitasuna menderatzen dute maila honi dagokion moduan. Aurreko mailetakoa lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Adibidez, perimetroen kalkuluen gaineko ezagutzak aplikatzen dituzte galderari erantzuteko. Barra grafikoetako informazioa ateratzen dute. Kargu hartzen dute eta ulertzen dute egoera bat, nahiz eta informazio numeriko txikia izan, kurtso horretarako espero den arazoak logiko-matematikoa eskatzen duena Era berean, behar bezala ebazten dituzte bi urrats eskatzen duten arazoak, egoera matematiko bat planteatzea eskatzen dutenak. Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte; badakite denbora kalkulu errealek egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin, etab.

## **3. MAILA+**

Ez da aurrekoarekiko maila desberdina; maila honetan baina, ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek 2. eta 3. mailetan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte. Badituzte aipa daitezkeen berezitasunak. Adibidez, bizitzako eguneroko egoera guztiz errealek ebazteko behar den ezagutza arrunt zehatza eta berriazkoa erakusten dute. Esan daiteke 3. mailakoek baino ezagutza sakonagoak dituztela. Ezagutza horiek gainera buruan dituzte, eragiteko moduan. Taula bateko informazioa ulertzeaz gain, gai dira egoera pertsonalak ebazteko orduan erabiltzeko (ordutegiak prestatzea...). Estrategiak erabiltzen dituzte, egoera batean elementu batzuk identifikatu ahal izateko, arakatze sakona eskatzen duten lanak ebazte aldera. Adibidez, 3. mailakoek elementu asko aurkitzen dituzte; hauek ordea, gai dira elementu guzti guztiak kokatzeko.

## Mailen definizio numerikoa

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, ondoko taulan adierazten den moduan:

	<b>Irakurmena gaztelaniaz</b> <b>Puntuazio tartekak</b>
1. maila	0-10
2. maila	11-13
3. maila	14-22
3. maila+	23-30

### 4.3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen araberako sailkapena

Maila bereko ikasleen joera da galderei zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egiten dute zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 10. itema erraza izan da ikasle guztiendako. Horrek esan nahi du emandako testuinguru batean koherenteak diren galderak hautatzeko arrazoitzea erabiltzen dutela. 2. galdera zailagoa izan da, denek ez dituzte menderatzen denbora neurriak, eta azkenik, 24.a ebazpen matematikoko prozesu bat da, moneta unitateekin lan egitea eskatzen duena, erantzun ez zuzena edo osagarria emateko. Ikaslerik gaituenek baino ez dute zuzen ebatzi.

Ondoren, zenbait item aipatuko ditugu.

**10. Ostiralean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoak planetariora joanen dira, eta 5. eta 6. mailakoak museora. Hauta ezazu egoera honetarako galderarik egokiena.**

- A. Lehen Hezkuntzako zenbat ikasle atera dira?
- B. Zenbat ikasle daude Lehen Hezkuntzan?
- C. 2. mailako zenbat ikasle gelditu dira jantokian?
- D. Zenbat ikasle geldituko dira ikastetxean egun horretan?

<b>Erantzun zuzena</b>	D
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Arrazoitze matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	1. maila
<b>Asmatuen % 1. mailan</b>	62,5
<b>Asmatuen %</b>	84,4

**2. Amak taxia 6:45ean deitu dio, eta 7:10ean iritsi da. Zenbat denbora behar izan du taxiak etortzeko?**

- A. 15 minutu.
- B. 25 minutu.
- C. 30 minutu.
- D. 35 minutu.

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Ebazpen matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	2. maila
<b>Asmatuen % 2. mailan</b>	61,8
<b>Asmatuen %</b>	74,1

**22. Jorgek 60 metro luze eta 45 metro zabal den futbol zelaian jokatu du. Entrenatzaileak, beroketa ariketen barnean, futbol zelaiaren perimetroan barna itzuli bat emateko agindu die. Zenbat metro egingen ditu Jorgek?**

- A. 105 m
- B. 150 m.
- C. 165 m.
- D. 210 m.



<b>Erantzun zuzena</b>	D
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Ebazpen matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila
<b>Asmatuen % 3. mailan</b>	68,2
<b>Asmatuen %</b>	58,0

24. Zenbait gauza erosi ditu, tartean fruta, esnea eta gailetak. 50 €ko bi billetekin ordaindu dute erosketak. Dendariak itzuli dizkio 20€ko billete bat, 5€ko hiru billete eta 2 €ko bi txanpon. Zenbat kosta zaio erosketak?

- A. 39 €
- B. 61 €
- C. 71 €
- D. 74 €

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Puntuazioa</b>	1
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Prozesu matematikoa</b>	Ebazpen matematikoa
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+n</b>	81,6
<b>Asmatuen %</b>	45,8

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat sailkatzeko maila batean.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<b>Item kopurua</b>	<b>Mailen araberako sailkapena</b>
1	3. maila
2	2. maila

3	2. maila
4	3. maila+
5	3. maila
6	3. maila
7	*
8	1. maila
9	2. maila
10	1. maila
11	2. maila
12	3. maila+
13	3. maila
14	3. maila
15	3. maila
16	3. maila
17	2. maila
18	3. maila+
19	3. maila
20	3. maila+
21	3. maila+
22	3. maila
23	*
24	3. maila+
25	3. maila+
26	3. maila+
27	3. maila

\* Diskriminazio maila baxuko itemak.

#### 4.4 Eraitza orokorrak

**Estatistiken tabula (matematikako gaitasuna)**

<b>Kop. osotara</b>	<b>6.117</b>
<b>Gaitasun kop.</b>	<b>6.077</b>
<b>Nesken kop.</b>	<b>2.985</b>
<b>Mutilen kop.</b>	<b>3.092</b>
<b>Gutxieneko puntuazioa</b>	<b>1</b>
<b>Gehieneko puntuazioa</b>	<b>30</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>16,14</b>
<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>5,49</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>15,95</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>16,33</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>16,8</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>15,9</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>53,9</b>
<b>3. maila+ (%)</b>	<b>13,4</b>

#### **Alderdi azpimarragarriak:**

- Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehieneko 30 puntuetatik gutxieneko puntu 1era.

- Desbideratze tipikoa handikoa da, eta horrek esan nahi du puntuazioak dezente aldentzen direla batez besteko puntuaziotik.


- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua: 40.

## Banaketa mailaka

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehunekoak, mailaka
1. maila	16,8
2. maila	15,9
3. maila	53,9
3. maila+	13,4

## Irudikatze grafikoa



## Alderdi azpimarragarriak

-10 ikasletatik ia 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion prozesu matematikoak gauzatzeko.

- 20 ikasletatik 3k prozesu matematikoak oso justu egiten dituzte.

- 20 ikasletatik 3 ez dira gai prozesu matematikoak egoki egiteko.


## Banaketa sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 0,38 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori ez da handia




	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	15,95
Mutilen batez bestekoa	16,33

### Irudikatze grafikoa



### Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



**Alderdi azpimarragarriak:**

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Kamutsagoa, puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia 0,579 da.
- Aski simetrikoa da, asimetria koefizientea -0,0527koa da.

## 5. Gaitasuna ingelesez

### 5.1 Probaren deskribapena: item kopurua, puntuazioa, tipologia eta asmatutakoen kopurua

Probak hiru atal izan ditu: ahozko proba, "Listening", 7 galderekin; idatziaren ulermena, "Reading", 15 galderekin eta idazmena, "Writing". Azken honetarako, postal bat idatzarazi zaie.

Hiru hizkuntza trebetasunek pisu desberdina izan dute probaren guztirako puntuazioan, ondoko taulan azaltzen den moduan:

Trebetasuna	Pisua guztirako puntuazioan %
Listening	20
Reading	60
Writing	20

23 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko irakurketa prozesu desberdinekin harremanetan daude. Ondoko taulan azaltzen dira probako itemen ezaugarri zenbait: *Emandako gehieneko puntuazioa, tipologia irekia edo itxia, zailtasun maila eta ebaluaturiko prozesua*

Item zkia.	Gehieneko puntuazioa	Irekia / Itxia	Asmatu en %	Ebaluaturiko prozesua
1	0,943	Closed	56,2	Informazioa bilatzea
2	0,943	Closed	79,8	Informazioa bilatzea
3	0,943	Closed	75,3	Informazioa bilatzea
4	0,943	Closed	31,2	Interpretatzea
5	0,943	Closed	34,3	Informazioa bilatzea
6	0,943	Closed	42,9	Informazioa bilatzea
7	0,943	Closed	47,6	Ulermen orokorra
8	1,237	Closed	91,2	Interpretatzea
9	1,237	Closed	53,3	Interpretatzea

10	1,237	Closed	86,5	Interpretatzea
11	1,237	Closed	77,1	Interpretatzea
12	2,474	Opened	56,4	Ekoizpen idatzia
13	1,237	Closed	90,5	Informazioa bilatzea
14	1,237	Closed	74,9	Informazioa bilatzea
15	1,237	Closed	5,4	Interpretatzea
16	1,237	Closed	23,3	Interpretatzea
17	1,237	Closed	53,5	Informazioa bilatzea
18	1,237	Closed	35,4	Informazioa bilatzea
19	1,237	Closed	27,7	Informazioa bilatzea
20	1,237	Closed	40,7	Interpretatzea
21	1,237	Closed	61,8	Informazioa bilatzea
22	1,237	Closed	42,9	Ulermen orokorra
23	6,6	Opened	40,6	Ekoizpen idatzia

## 5.2 Gaitasun mailak: esanahia

Ikasleek zuzen erantzundako galderen azterketatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailaka banatu da, ondoko esanahiarekin:

### 1. MAILA

Maila honetan dauden ikasleak gai dira informazio literala ulertzeko, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoetan. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretazioa, ulermen orokorra, hausnarketa eta balorazioak eskatzen dituzten galderari erantzuteko.

Nolanahi ere, gai dira pertsonaia nagusiaren deskribapen labur bat egiteko eta testuaren ildo nagusiarekin oso loturik dagoen interpretazio orokorren bat egiteko.

### 2. MAILA

Maila honetako ikasleek egoki erantzuten diete 1. mailako galderari, hots, informazio literalak ulertzea eskatzen duten galderari, bai narrazio testuetan eta bai azalpenezkoan. Baina gainera, informazioa bilatzeko galderak ere ebazten dituzte, eta horiek testuaren ulermen maila handiagoa eskatzen dute. Gai dira, halaber, pertsonaiaren ekintza zehatz baten eragina aurreratzeko.

Nolanahi ere, zailtasunak dituzte ulermen orokorrerako, interpretaziorako eta testuak baloratzeko. Ez dira gai inferentzia konplexuagoak egiteko, hurrenez hurreneko bi

paragrafotan dauden hiru ekintza kontatzeko edo pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzeko.

### **3. MAILA**

Maila honetako ikasleek zuzentasunez ebazten dituzte informazioa bilatzearekin erlazionaturiko galderak, literalak zein ez literalak, eta gainera, orokorki ulertzen dute testua eta gai dira berreraikitzeke, emandako esaldien bidez, istorioaren sekuentzia. Edukiaren gainean hausnartzeari dagokionez maila ona dute. Gainera, testu etendun batean ulertzen dute informazioaren banaketa eta non bilatu behar den berriazko informazio mota bat. Gai dira testua baloratzeko eta testuaren gainean hausnartzeko, testuko datuak baliatuz edukiaren aplikagarritasunerako beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko asmoz.

### **3. maila+**

Maila honetako ikasleek, 3. mailan inplikaturiko lanak egokitasunez betetzeaz gain, konplexuagoak direnak ere ebazten dituzte. Adibidez, gai dira aurreikusteko pertsonaiaren etorkizuneko portaera eta gai dira testuaren edukiaren gainean hausnartzeak eta interpretazioak egiteko, sinesgarritasun irizpideen arabera. Azalpenezko testuan gai dira testuan esplizituak ez diren interpretazio konplexuak egiteko.

### **Mailen definizio numerikoa**

Maila batean sartzeko beharrezkoa da maila horri dagokion tartean dagoen puntuazio orokorra erdiestea, ondoko taulan adierazten den moduan:

	<b>Irakurmena ingelesez Puntuazio tartek</b>
<b>1. maila</b>	0-9
<b>2. maila</b>	10-12
<b>3. maila</b>	13-26
<b>3. maila+</b>	27-33

### **5.3 Itemak: informazioa, adibideak eta mailen arabeko sailkapena**

Maila bereko ikasleen joera da galderei zuzen erantzutea, zailtasun maila batera iritsi arte, eta huts egitea zailtzat jotzen dituztenetan. Hortaz, azken hauek adierazten digute zein

prozesu eta lan diren menderatzen ez dituztenak, eta ondorioz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hausnarketarako helburu izan daitezkeenak.

Adibidez, 8. itema oso erraza izan da, 11. zailagoa izan da, eta 4. eta 19.ak ikasle gaituenek baino ez dituzte zuzen egin. Ondoren, zenbait item aipatuko ditugu.

### 13. Where does Ann live?

- A. in London
- B. in Pamplona
- C. in Madrid
- D. in England

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	0,943
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Informazioa bilatzea
<b>Gaitasun maila</b>	1. maila
<b>Asmatuen % 1. mailan</b>	71,8
<b>Asmatuen %</b>	90,5

11. Andrew likes pasta and fish, but he doesn't like ice-cream. What menu Hill he choose?

- A. menu 2
- B. menu 3
- C. menu 4
- D. menu 5

<b>Erantzun zuzena</b>	D
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	0,943
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Interpretatzea
<b>Gaitasun maila</b>	2. maila
<b>Asmatuen % 2. mailan</b>	69,9
<b>Asmatuen %</b>	77,1

17. In London they visited...

- A. Ann and Lily's cousins

- B. Ann and Lily's grandparents
- C. Ann and Lily's parents
- D. Ann and Lily's friends

<b>Erantzun zuzena</b>	B
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	0,943
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Informazioa bilatzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila
<b>Asmatuen % 3. mailan</b>	59,6
<b>Asmatuen %</b>	53,5

**18. Did Lily remember the places they visit?**

- A. no
- B. yes
- C. some of them
- D. all of them

<b>Erantzun zuzena</b>	A
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	0,943
<b>Mota</b>	Itxia
<b>Irakurketa prozesua</b>	Informazioa bilatzea
<b>Gaitasun maila</b>	3. maila+
<b>Asmatuen % 3. maila+n</b>	80.6
<b>Asmatuen %</b>	35

Ondoko taulak erakusten du zein item dagokion gaitasun maila bakoitzari, baina ulertu behar da hurbilpenezko erreferentzia kualitatibo gisa, maila bateko eta besteko ikasleen arteko asmatuen ehunekoen arteko desberdintasuna ez baita beti aski estatistikoki erabat sailkatzeko maila batean.

Erantzun partziala edo osoa izan dezaketen galderak maila desberdinei dagozkie, ebaluaturiko prozesua gehiago menderatzea edo zabaltzea ahalbidetzen badute.

<b>Item kopurua</b>	<b>Mailen araberako sailkapena</b>
1	3. maila
2	2. maila

3	2. maila
4	3. maila+
5	3. maila+
6	3. maila+
7	3. maila+
8	1. maila
9	3. maila
10	1. maila
11	2. maila
12	3. maila
13	1. maila
14	2. maila
15	*
16	3. maila+
17	3. maila+
18	3. maila+
19	3. maila
20	3. maila+
21	3. maila+
22	3. maila
23	2. maila

\* Diskriminazio maila baxuko itemak.



## 5.4 Emaidza orokorrak

Estatistiken taula (gaitasuna ingelesez)

<b>Kop. osotara</b>	<b>6.117</b>
<b>Gaitasun kop.</b>	<b>6.055</b>
<b>Nesken kop.</b>	<b>2.976</b>
<b>Mutilen kop.</b>	<b>3.079</b>
<b>Gutxienezko puntuazioa</b>	<b>1</b>
<b>Gehienezko puntuazioa</b>	<b>33</b>
<b>Batez besteko puntuazioa</b>	<b>16,97</b>
<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>6,69</b>
<b>Nesken batez bestekoa</b>	<b>17,74</b>
<b>Mutilen batez bestekoa</b>	<b>16,23</b>
<b>1. maila (%)</b>	<b>16,3</b>
<b>2. maila (%)</b>	<b>15,8</b>
<b>3. maila (%)</b>	<b>58,7</b>
<b>3. maila+ (%)</b>	<b>9,2</b>

### Alderdi azpimarragarriak

-Diferentzia handiak daude banakako puntuazioei dagokienez: gehienezko 33 puntuetatik gutxienerako puntu 1era.

- Desbideratze tipikoa handia da, eta horrek erakusten du banakako puntuazioak batez bestekotik aldentzen direla. Puntuazio asko daude eskalaren muturretan.


- Kopurua osotara eta gaitasuneko kopurua bata bestearekin erkatuz gero, ondokoa da ikastetxean ez zeudelako proba egin ez duten ikasleen kopurua: 62.

### Banaketa mailaka

Oso garrantzitsua da ezagutzea zein den ikasleen ehunekoak gaitasun maila bakoitzean, horren arabera zehaztu daitezkeelako benetako beharrianak eta gaitasun horretako errendimendua hobetzeko egin beharreko lanaren dimentsioa.

	Ehuneakoak, mailaka
1. maila	16,3
2. maila	15,8
3. maila	58,7
3. maila+	9,2

### *Irudikatze grafikoa*



### **Alderdi azpimarragarriak:**

-10 ikasletatik ia 7k erdietsi dute 3. maila edo 3. maila+; gai dira beraien adinari dagozkion irakurtzeko prozesuak gauzatzeko.

- 20 ikasletatik 3k irakurtzeko prozesuak oso justu egiten dituzte.


- 20 ikasletatik 3 ez dira gai irakurtzeko prozesuak egoki egiteko.

## Banaketa sexuaren arabera

Neskek mutilek baino 1,51 puntu gehiago erdietsi dituzte. Diferentzia hori ez da handia.


	Batez besteko puntuazioa
Nesken batez bestekoa	17,74
Mutilen batez bestekoa	16,23

### Irudikatze grafikoa



## Puntuazioen banaketa

Grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko puntuazio globalen banaketa.



### Alderdi azpimarragarriak:

Puntuazioen banaketa, banaketa normalarekin erkatuz gero, honakoa da:

- Kamutsagoa, puntuazio kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan, kurtosia 0,794 da.

- Ez da oso simetrikoa, eskuinaldera mugitua dago, asimetria koefizientea 0,233 da.